


Uharteen izena eta izana




**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Callao (Peru), 1772ko irailaren 26a. *Aguila* fragata espainiarra portutik abiatu zen Tahitira bidean, Domingo Bonetxea kapitain getariarra (1713-1775) buru zuen espedizioan. Urte batzuk lehenago James Cook kapitaina iritsia zen Polinesiako inguru haietara, eta Peruko erregeorde Manuel d'Amat i de Junyent beldur zen britainiarrek handik erregeorderria edo San Karlos (Rapa Nui) uhartea erasoko zutela. Horregatik bidali zuen Bonetxea uharte haietara, "atzerritarren azpikerien berri jakitera, (...) kristautasunera arima berriki ekartzera eta erregearentzat basailu gehiago ekartzera".

Abiatu eta hilabetera, *Aguila*-ko eskifaia uharteak begiztatzten eta izendatzten hasi zen. Lehena San Simon eta San Judas (Tenere) izan zen. Ondoren, San Kintin (Haraiki), Santu Guztien uhartea (Anaa) eta San Kristobal (Mehetia) ikusi zituzten. Azaroaren hasieran iritsi ziren Tahitira eta erregeordearen izena jarri zioten inguruko uharte handienari: Manuel d'Amat i de Junyent. Bueltan Santo Domingo (Moorea) ere ikusiko zuten. Bigarren bidaiari irla gehiago ikusi zituzten: San Narziso (Tatakoto), Martiriak (Tekokoto), San Joan (Hikueru), San Julian (Faaite) eta San Blas (Tahanea). Bonetxea bidaiari horretan hil zen, Tahitin, 1775eko urtarrilaren 26an.

Getariarra izan zen lehena erregearen izenean irla horiez gurtzietz jabetzen.



MENDEBALDEKO SOZIJATE UHARTEAK (1784). MAPA JAMES COOK KAPITAINAK 1769AN IRLETARA EGINDAKO LEHEN BIDAIAIN OINARRITU ZEN. DOMINGO BONAETXEA GETARIARRA URTE BATZUK GEROAGO IRITSIKO ZEN INGURU HAIETARA.

Baina zaila da jakiten nork "aurkitu" ziotuen lehenengoz: Pedro Fernández de Queiros portugaldarra, García Jofre de Loaisa espainiarra, Louis-Antoine de Bouganville frantziarra eta Wallis eta Cook britainiarrak ere inguru haietan ibiliak ziren lehenago.

Eta, jakina, polinesiarrak europarrak baino askoz lehenago iritsiak ziren uharte haietara. Egun Frantziar Polinesia osatzen duten irlatara K.o IV. mendean iritsi ziren eta 800. urteaz geroztik bizi ziren

Bonetxeak bataiatutako uharteetan.

Zorionez, izen europar katoliko horiek ahaztu eta, egun, jatorrizko izen polinesiarrak dituzte irlek, hemen parentesi artean jaso ditugunak. Tamalez, espainiarrak alde eginez geroztik, Frantziaren menpe daude. Itsasoaz Haraindiko Kolektibitatearen (*Collectivité d'outre-mer*) parte dira egun eta, besteak beste, 90eko hamarkadan debekatu zituzten arte, arma nuklearren entseguetarako erabili izan ditu Frantziak. ●

Egurrezko eskulturarik zaharrena

Shigir-eko idoloa Siberiako ekialdeko ertzean aurkitu zuten 1890ean (argazkian, eskulturaren burua). Orduz geroztik, kontserbazio egoera kaxkarrak eraginda, eskultura luzea desegiten joan da; bost metrotik gora luze zen aurkitu zutenean eta orain erdia besterik ez da geratzen. Baina bitartean arrastoak aztertu dituzte eta duela

bizpahiru urte piezaren adina zehaztu zuten: 11.000 urte ditu, Göbekli Tepe-n (Turkia), munduko gurtza gune zaharrenean aurkitutako pilare antropomorfoek bezalaxe. Horrek esan nahi du, garai hartan, Ekialde Hurbileko lehen nekazariak bezala, Uraletako ehiztari biltzaileak ere arte objektu monumentalak sortzen hasi zirela. ●



THOMAS TERBERGER